



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Prentsa zerbitzua

MANKOMUNITATEAK EUSKERAREN ALDE EGITEN DU ZENBAIT PROIEKTUEN GARAPENAREKIN

Besteak beste ezagunak diren Futbola Oinarritik Euskaraz, Izaren Distira, Aisialdirako zuzendari edo begirale edota Euskaragida ekimenekin jarraituko du Mankomunitateak

Berrikuntza bezala, laister “Durangaldeko beharsarea” izaneko web ataria egongo da martxan, enplegua eskeintzeko helbururarekin eta bestetik Mankomunitateko euskeraren erabileraren sustapenerako plan orokorra jarriko da abian.

Euskeraren sustapenerako Amankomunazgoak 119.677 eurotako aurrekontua izango du.

Durangaldeko euskararen erabileraren normalizazioa betetzeko asmoarekin, Amankomunazgoak ekimen desberdinak jarriko ditu abian hurrengo hilabeteetan:

• Futbola Oinarritik Euskaraz

Itzarri Consulting enpresako Koikili Lertxundiren eskutik eta Berbaro Elkartearen kolaboraziarekin dator Futbola Oinarritik Euskaraz egitasmoa. Mankomunitatearen erronketako bat kirol arloan euskara sustatzea da, egitasmo honek futboleko euskaraz aritzea du xede. Izan ere, kirol arrakastatsu honetan gaztelania da gehien erabiltzen den hizkuntza. Askotan, entrenatzaileak euskaldunak izan arren, arazoak izaten dituzte arlo teknikoetan euskaraz aritzeko. Behar horri erantzuteko asmoz eskainiko dira ikastaro hauek. Izan ere, hizkuntzaren normalizazioan aurrera egiteko arlo garrantzitsua da futbola, haur asko aritzen baitira kirol honetan.

Aurten guztira, bi talde desberdinetan 32 gazte daude ekintza desberdinetan parte hartzen. Taldeak Durango eta Matiena-Zaldibarren garatzen ari dira. Partaideak Abadiño, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza eta Zaldibarko herritarral dira.

BESTE EKINTZA BATZUK

• Izarren Distira

Urtero bezala, nerabe eta gazteentzako Izarren Distira izango da. Helburua gazteak, euskeraz beste era batera gozatzeko aukera izango dute esperientzia positiboak aintzat hartuta. Horrela musika, antzerkia edota beste edozein ekintzarekin, euskeraren presentzia indartu nahi da” Mankomunitateko lehendakaria den Oskar Zarrabeitiaren esanetan. Aurten gainera berritasun bezala proiektuak kazetari tailerra eta maratoi bat bat ere antolatuko du. Kantaldia Plateruenean ospatuko da.

• Astialdiko Begirale eta Zuzendari ikastaroak

Gazteei euskarazko formazioa eskaintzeko asmoz eta Titulu Ofizialek daukaten garrantzia aintzat hartuta, aurten ere Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Urtxintxa Eskolaren eskutik Astialdiko Begirale eta Zuzendari ikastaroak antolatu ditu. 40 gaztek izena eman ahalko dute (20 pertsona kurtso bakoitzeko). Prestakuntza euskeraz izango da eta eskualdeko gazteentzak doakoa. Informazio guztia <http://www.mdurango.org> web orrialdean aurki daiteke.

• Euskaragida

Durungaldean badago euskara ikasteko aukera. Urtero bezala, www.euskaragida.com webgunea prest dago, gure eskualdean euskara ikasteko baliabide guztien berri emanez: *Urratsez urrats, helmugaraino*. Aurten berrikuntza moduan, *Ongi etorri* izeneko atala sortu da zazpi hizkuntza ezberdinetan: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, errumanieraz, txineraz eta arabieraz. Atal honen helburua gure eskualdera etorri berri direnei euskarazko eskaintza helaraztea da.

• Durungaldeko Beharsarea

Durungaldeko Beharsarea, lana euskaraz eskaini eta eskaintzeko web orria martxan egongo da laster.

- **Euskaren erabileraren sustapenerako plan orokorra**

Durangoko Mankomunitateko Euskara Zerbitzutik Euskararen Erabilera Plana lantzen ari dira, urte amaiera baino lehen onartzeko. Orain dela urte bi Mankomunitateko Euskararen Erabilera Plana onartu zen. Bi urteko iraupenaren ostean, 2013an indarrean sartuko den plana garatzen dabilta orain. Euskararen normalizazioan pauso berriak emateko asmoz, 2013an EBPNa (Euskara Biziberritzeko Plan nagusia) garatuko da Merinaldean.

AURREKONTUA

Egitasmo hauek eta beste hainbat aurrera eramateko, 119.677,78 euroko aurrekontua du Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Horretarako laguntzak eskatu dira Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari ere.